



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2018/2019 denboraldia

20 ZK.DUN ZIRKULARRA

EUSKADIKO FEDERAKUNDEAREN XXIV. EMAKUMEZKOEN KOPA

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin bat, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo arauei jarraiki :

1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

Izena eman duten hamazortzi taldeek hartuko dute parte, hurrengo eran bananduta

A) BIGARREN NAZIONAL MAILA

Añorga K.K.E., Athletic Club "B", Aurrera de Vitoria C.D. "A", Bizkerre Club "A", Deportivo Alavés, Eibar S.D., Oiartzun K.E. "A" eta San Ignacio S.D.

B) EUSKAL LIGA

Anaitasuna C.D., Bizkerre Club "B", Derio C.D., Elorrio C.D., Erandio Betiko Neskak F.K.E., Goierri Gorri F.K., Leioako Emakumeak S.F.K.E., Pauldarrak F.K.T., Tolosa C.F. eta Zarautz K.E.

2.- LEHIAKETA SISTEMA

Fase bitan egingo da: aurrekoa eta finala.

1. Aurretiazko Fasea (maiatzak 12)

Parte hartuko dute aurreko fase honetan partida batera, lau talde, hamalau libre geratuz.

Garaileak, fase honetatik libre geratu diren batera, txapelketaren amaiera fasean hartuko dute parte.

2. Amaiera Fasea

Final-zortzirenak, Final-laurdenak, finalaurrekoak eta finala eratuko dute, lehenengo bi kasuetan eta finalean partidu bakarraren arabera eta finalaurrekoak partidu bikoitzaren arabera.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

-Final-zortzirenak (maiatzak 19)

Txapelketaren aurretiazko fasea gainditu zuten taldeak eta honetatik hamalau libre geratutakoak hartuko dute parte, zozketaren arabera bikoteka elkartuta. Lokal bezala jolasten dena, bolen erauzketa hurrenkera zehaztuko du.

-Final-laurdenak (maiatzak 26)

Final-zortzirenetako zortzi garaileek hartuko dute parte, zozketaren arabera bikoteka elkartuta.

- Finalaurrekoak (ekainak 2 eta 9)

Final-laurdenetako lau garaileek hartuko dute parte, zozketaren arabera bikoteka elkartuta.

Finala (ekainak 15)

Finalaurrekoen bi irabazleen artean ospatuko da, Laudioko Ellakuri futbol zelaian.

3.- JOKALARIEN ZELAIRAKETA ETA ORDEZKAKETA

Parte hartzen duen mailako taldeak osatzen duen lehenengo taldeko gutxienez bost jokalaria parte hartu behar dute partidaren ihardura osoan zehar. Honetaz gain, bost aldaketa egin daitezke gehienez, zazpi aldagaien artean.

4.- BERDINKETAK

EFFren Araudi Orokorrak ezarritako moduan desegingo dira berdinketak.

Fase guztietan partiduan berdinketa izan ezker, penalti puntutik jaurtiketa serieak egingo dira.

5. ENTRENATZAILEAK

Ezinbesteko arrazoia ez bada, entrenatzailea bere taldeak parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

6. DELEGATUAK

Delegatu bat gutxienez edukitzeko derrigortasuna gogoratzen da, bere lizentzia federatiboa tramitatuta.

Ezinbesteko arrazoia ez bada, delegatua bere taldeak parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.

7.- ARBITROAK

Fase guztietan partidak zuzentzeko izendatutako arbitro nagusiak Nazional mailakoak izango dira.

Ordainagiria 115€tako bakarra izango da.

8.- PARTIDEN ORDUTEGIAK

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari. (Fax 94-473.22.21 Posta Elektronikoa webmaster@eff-fvf.eus edo EFF web orrian)

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, 15,30tik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Honetaz gain, ordu epea ezartzen da partiduak hasteko, hau da goizeko 10.30tik 13.00tara eta arratsaldeko 15.30tik 19.00ra. Epe honetatik kanpo hasiko diren partiduak, klubaren arteko akordioarekin izan behar dira.

9.- GARAIKURRAK

Euskadiko Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

Hogeitabost dolumina talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 4 -

10.- DIZIPLINA BATZORDEA

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziiplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziiplina eta Apelazio batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2019eko maiatzaren 2an

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General